



2HI-014/10-P03 ABANTO ZIERBENA

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen batzarrak azaroaren 23an Gasteizen egin zuen 5/2012 bilkuran besteak beste erabaki hau hartu zutela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

## **I.- Lurralde-antolamenduaren arloan**

Irizpena ematea Abanto eta Zierbena udalerriko “Hiri Antolamendurako Plan Orokorren berrikuspena, lurzoru urbanizaezinari, Petronorren hiri-lurzoruari eta sistema orokorreari dagokiena” espedienteari buruz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen Lurraldearen Antolamendurako tresnetara eta Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanetarako uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdietara egokitzeari dagokionez. Irizpena hurrengo baldintzei jarraiki egingo da:

### **1. INGURUNE FISIKOA.**

#### **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetara egokitzea. Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa eta erabilerak**

- Lurzoru urbanizaezinerako proposatutako antolamendu-kategoriari dagokienez, aldeko balioespena egitea, lurralde-antolamenduko gidalerroetan eta nekazaritzako nahiz basozaintzako lurralde-plan sektorialean xedatutakoarekin bat datozenean.
- Udalerriko landa-guneei buruz proposatzen diren zehaztapen berrien aldeko balioespena egitea.
- Erabilera- eta eraikuntza-araubideei dagokienez, aldeko balioespena egitea, LAAen ingurune fisikoa antolatzeke matrizearekin bat datozenean. Aurrekoa hala izanik ere, baratze- edo abeltzaintza-ustiapenari lotutako etxebizitza-erabilerari dagokionez, espedienteak espresuki adieraziko du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 31. artikulua bete behar dela, baratze- edo abeltzaintza-ustiapenari lotutako bizitegi-erabilera horretara bideratutako oin berriko eraikuntza-lizentziak emateari dagokionez.

### **2. PETRONORREN HIRI-LURZORUA.**

EAEko Gobernu Ordezkaritzak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritzak emandako irizpenen arabera:

Espedientearen kontrako irizpena ematea Petronorren esparruan ezarritako zehaztapenei dagokienez, eta hura esparru horretan behin betiko onartzeko baldintza moduan jartzea zehaztu egin behar direla hiri-lurzoru moduan sailkatzeari eta industria bereziko inguru moduan sailkatzeari buruzko zehaztapenak, inguruaz “Ekoizpenerako ez den Eremu Libre” delako definizioa kendu behar izateaz gain.



Era berean, adieraziko da esparru honetan aplikagarria izango dela 34/1998 Lege, urriaren 7ko, Hidrokarburoen sektorea arautzekoan xedatutakoa.

### 3. SISTEMA OROKORRAK.

Aldeko irizpena ematea Gune Librean Sistema Orokorraren zonifikazio orokorrari eta azalerari buruz, hark bermatu egiten baitu 2/2006 Legeak berdegunez eta hiri-parkeez den bezainbatean galdaturiko zuzkidura publikoa.

Espedientea Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiari igortzen zaie, bide- eta trenbide-sistema orokorretan eragindako aldaketak azter ditzaten.

## II.- Estatuko Administrazio Orokorra

Beharrezkoa da kontuan hartzea Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkariak 2012ko azaroaren 15ean emandako txostenean jasotako zehaztapan lotesleak.

## III.- Energia eta Meategien Zuzendaritza

Kontuan hartu beharko dira Energia eta Meategien Zuzendaritzak 2012ko azaroaren 20an emandako txostenean jasotako zehaztapan lotesleak.

## IV.- Uraren Euskal Agentzia

Uraren Euskal Agentziak, 2012ko azaroaren 16an, aldeko txostena egin zuen, zehaztapan lotesle hauek betetzeko baldintzarekin:

Azaleko Urak Babesteko Eremuari buruzko arautegiaren barruan, erabileren eta obren erregimenari dagokion 34. artikuluko 6. puntuan hau esaten da: "*Erriberako herri-jabariko eremuarekin mugakide diren finken itxiera ezingo da egin material opakuak erabiliz*"; baina egokiagoa litzateke hau agertzea: "*Herri-jabariko zortasun-zonarekin mugakide diren finken itxiera ezingo da egin material opakuak erabiliz*", edo, bestela, itxierek gutxienez ibilguekiko 5 m-ko atzerapena izan beharko luketela adierazi beharko litzateke.

## V.- Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza

Beharrezkoa da kontuan hartzea Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritzak 2012ko azaroaren 20an emandako txostenean jasotako zehaztapan lotesleak.

VI. Organo eskudunari bidaltzea, espedientea behin betiko onar dezan, honako hauek emandako irizpenak: Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak (I. eranskina); Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzak (II. eranskina); Estatuko Administrazio Orokorrak (III. eranskina); Energia eta Meategien Zuzendaritzak (IV. eranskina); Uraren Euskal Agentziak (V. eranskina); BFAko Bide Azpiegituretarako Zuzendaritzak (VI. eranskina); eta BFAko Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritzak. Guztiak ziurtagiri honi erantsita daude."



**EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN BATZORDEA**  
**COMISION DE ORDENACION DEL TERRITORIO DEL PAIS VASCO**

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Gasteizen, 2012ko azaroaren 23an.



IDAZKARIA

Sin.: Tomás Orallo Quiroga